



EJko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza

1.- Sarrera



2.- Mugiment sustatzaileak



3.- Mugiment sareak



4.- Jarduera fisikoaren orientazio zerbitzuak



5.- Eusfit Mugiment



6.- Koordinazioa



7.- Komunikazioa



8.- Formazioa



9.- Dirulaguntzak



10.- Ikerketa



11.- Zeharkako egitekoak



12.- Adierazleen taula



13.- Laburpena



1.- Sarrera

Dokumentu honen bidez 2023an landutakoaren ebaluazioa egin nahi dugu. Bereziki, [2022-2024 lan-programan](#) ezarritako helburuen jarraipena eta betetze maila aztertzen da.

Mugiment egitasmoa erakunde ezberdinen lan eta koordinazio ahaleginean oinarritzen da. Txosten honetan **Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, Mugiment egitasmoari egiten dion ekarpena ebaluatuko dugu**, jakinda beste erakunde batzuk ere jarduera fisikoaren sustapenean lan egiten dutela Mugiment egitasmoaren baitan.

2023ko ebaluazioak 13 atal ditu, lan programan zehaztu genituenak.

Txostena bukatzeko **atal bakoitzari dagokion ondorio nagusi bat azpimarratzen da eta urteko ondorio nabarmenenak aipatzen dira**; positiboak eta negatiboak.

Datuetan oinarrituta egon arren, ebaluazio hau iritzi teknikoa baino ez da, eta horrela ulertu behar da.

Informazio gehiago lortzeko, dauden esteketan klikatzea proposatzen da.

2.- Mugiment sustatzaileak

Mugiment sustatzaileak dira Mugiment egitasmoaren ekimen ezberdinetan parte hartzen ari diren erakundeak eta, orohar, jarduera fisikoaren sustapenean bere aletxoak jarri nahi duten eragile guztiak. Mugiment sustatzaile izateko, bi baldintza bete behar dira:

- 1- Gizarte aktiboa lortzeko lagungarriak izan daitezkeen ekimenak sustatu behar ditu erakundeak. Ekimen hauetako batzuk izan daitezke esaterako, orientazio zerbitzuak eta sareak edota Kiroltxartela Mugiment.
- 2- Mugiment sustatzaile bihurtu nahi dutela guri adierazi.

-  10 erakunde berri gehitu dira egitasmora eta [120 sustatzaile](#) gara (Eusfit Mugiment ekimeneko ikastetxeak zenbatu gabe).

3.- Mugiment sareak

Mugiment sareak arlo arteko lantaldeak dira, helburuetan jarduera fisikoa sustatzea dutenak. Sare hauek tokian-tokikoak dira eta Mugiment partaideak izan behar dituzte eragileen artean.

-  [30 sare daude](#) lankidetzaren bidez jarduera fisikoa sustatzen, iaz baino 5 gehiago.
-  115 bilera egin dira Mugiment sare ezberdinetan.
-  ESI ezberdinetako erizain komunitarioak tokiko sareetan parte hartzen hasi dira eta honek ikuspegi komunitarioan azpimarra gehiago jartzen du.

4.- Jarduera fisikoaren orientazio zerbitzuak

Pertsona inaktiboentzako laguntza zerbitzuak, osasunaren eta kirolaren arloetako lankidetzan oinarrituta.

-  2023an 39 [orientazio zerbitzua](#) aritu dira lanean, iaz baino 7 gehiago. 5 Araban, 17 Bizkaian eta 17 Gipuzkoan.
-  Lehen arretako fisioterapia zerbitzuekin lankidetzak gero eta estuagoa da.
-  Donostialdeko ESItik ez beste guztietatik deribatutako erabiltzaile kopurua ezagutzeko zailtasunak ditugu.

5.- Eusfit Mugiment

Euskal ume-nerabeen sasoi fisikoaren monitorizazio sistema.

-  27 udalerritako 34 ikastetxe eta 58 irakaslek parte hartu dute. 216 taldetako 3.605 ikasleri egin zaizkie probak.
-  Eusfit Mugiment aplikazio berria sortu da EJren sistema informatikoan.
-  Parte hartu duten irakasleen [balorazioa ona](#) izan da.
-  Aplikazio informatikoa atzerapenarekin sortu da.
-  Ez dugu adostu Osakidetzarekin Eusfit Mugiment ekimenaren bidez jasotako emaitzak pediatren esku jartzeko bidea.

6.- Koordinazioa

Mugiment elkarlaneko proiektua den heinean, erakunde desberdinekin harremana izatea ezinbestekoa da.

-  Aurreikusitako bilera egutegia bete da:
 - Tokian-tokiko sareetan 115 bilera egin ditugu.
 - Idazkaritza teknikoaren bilerak: 44, asteroko bilera, online edo presentziala.
 - Lurralde mailako bilerak: aurreikusitako biak egin ditugu Osasun Publikoa eta Aldundietako Kirol Zerbitzuekin. ([bilera agiriak](#))
 - Erkidego osoko kooordinazio bilera: Mugiment sustatzaile guztiekin bilera presentziala egin da. ([bilera agiriak](#))
 - Estatuan: Kirol Kontseilu Gorenak (CSD) sorturiko "Grupo de Trabajo de Hábitos Saludables - Promoción de la Actividad Física Beneficiosa para la Salud" [lan-taldean](#) parte hartzen dugu.
-  [EAEko jarduera fisikoaren preskripzio plana](#) argitaratu da. Errekuperazio, Eraldaketa eta Erresilientzia Planareko funtsak (Europar Batasunaren Next Generation EU funtsak) jasotzeko baldintza bat izan da.
-  [2/2023 LEGEA, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolarena](#) onartu da. Eragile ezberdinei betebeharrak ezartzen dizkie jarduera fisikoaren sustapenean eta horrek koordinazio ahalegin gehigarria suposatuko du.
-  Mugiment Ekintza Planerako proposamen teknikoa aurkeztu da.
-  Araba eta Bizkaiko Foru Aldundiekin elkarlana hobetu behar dugu.
-  Jaurlaritzako beste sailekin lankidetzan aritzeko zailtasunak gainditu behar ditugu.

7.- Komunikazioa

Komunikazioa garrantzitsua da Mugiment egitasmoan, erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko tresna ere badelako.

-  X sare soziala erabiltzen dugu eta @mugimenteuskadi kontuaren jarraipen maila ez da nahiko genukeena.
-  Baliabideen atala handitu dugu: 2 gida berri, 4 txosten, 4 irudi berri eta 4 datu iturri.
-  Webguneko harremanetarako postontziaren bitartez 42 pertsonen galderei erantzuna eman diegu (24 ordu pasa baino lehen), iaz baino 26 gehiago.

8.- Formazioa

2023an formazioak garrantzi berezia izan du Kirol Kontseilu Gorenak, Errekuperazio, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren baitan (Europar Batasunaren Next Generation EU funtsak), autonomia-erkidegoei proposatutako Jarduera Fisikoaren Preskripzioa Digitalizatzeko Planaren garapena gauzatu delako.

-  Kirol Eskolarekin eta Colcafid erakundearekin (JFren eta kirolaren zientzietako graduatuen elkargoa) elkarlanean, jarduera fisikoaren preskripzioari buruzko 2 ikastaro antolatu ditugu (euskaraz eta gaztelaniaz) jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko profesionalentzat.
 - Ikastaroak 40 ordukoa izan dira eta online formatoan eman dira, bina saio presentzialekin.
 - Guztira 339 ikaslek eman dute izena, eta horietatik 171k lortu dute ikastaroa gainditzea (% 50,44).
 - Nahiz eta gehienak EAEkoak izan, beste hainbat erkidegoetakoek ere parte hartu dute (Madril, Gaztela eta Leon, Andaluzia, Errioxa, Valentziako erkidegoa, Gaztela-Mantxa, Nafarroa, Asturias, Kanariak, Katalunia, Balear Uharteak).
-  Osakidetzako langileentzat formazioak egin ditugu osasun zentroetan jarduera fisikoaren preskripzioari buruz.
 - 25 formazio, 3 lurraldeetako osasun zentroetan.
 - 323 osasun profesionalek jaso zuten.
-  Eusfit Mugiment ekimenaren baitan [aplikazio berria erabiltzeko formazioa](#) egin genuen irakasleentzat.
-  [Activity breaks: ikasi mugituz!](#) webinarra antolatu genuen Kirol Eskolarekin.
-  [Euskadiko Azelerometria ikerketa](#) webinarra antolatu genuen Kirol Eskolarekin.

9.- Dirulaguntzak

Kirol Kontseilu Gorenak, Errekuperazio, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren baitan (Europar Batasunaren Next Generation EU funtsak), autonomia-erkidegoei funtsak banatu dizkie Jarduera Fisikoaren Preskripzioa bultzatzeko. Euskal Erkidego Autonomoak 341.600,56 € jaso ditu eta diru hau udalei zuzendutako dirulaguntza bat emateko erabili du jarduera fisikoaren orientazio zerbitzuak finantzatzeko laguntzeko.

-  Dirulaguntza deialdi berria argitaratu du Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak jarduera fisikoaren orientazio zerbitzuak bultzatzeko.
 - 341.600,56 € banatu dira (jasotako kopuru osoa).
 - 17 udalek (mankomunitate bat tartean) jaso dute dirulaguntza.
-  Dirulaguntza jasotzeko moduan zeuden udal batzuk ez dute eskabiderik aurkeztu.

10.- Ikerketa

Mugiment egitasmotik bultzatutako ikerketak eta idazkaritza teknikoaren parte-hartzea izan duten beste ikerlan batzuk aipatu behar dira:

-  [Azelerometria ikerketa](#) argitaratu da.
-  Etxeko laguntza zerbitzuko langileak prestatu eta gaitzeko esku-hartzean parte hartu dugu, hauek Donostialdeko ESI-ko etxeko paziente kronikoen ariketa fisikoaren praktika sustatu dezaten, eta pazienteei praktika horretan lagundu diezaieten.
-  Global Matrix 5.0 edizioan EAEk txosten aurkez dezan urratsak hasi ditugu.
-  Osakidetzak eta EHUko kirolaren zientzietako fakultatea burutzen ari diren Edonola ikerketan laguntzen ari gara.

11.- Zeharkako egitekoak

Zeharkako egitekoetan berdintasuna, hizkuntza eta ingurumena ditugu jomugan:

11.1.- Berdintasuna

EJko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak berdintasunaren inguruko konpromisoak ezarri ditu kudeatzen ari diren programa guztietan, horien barne Mugiment egitasmoa. Jarraian azaltzen da 2022ko konpromisoak eta betetze maila:

GOBERNU ONARI LAGUNTZEKO PROGRAMAK	EKINTZAK	BETETZEA
BG3. Berdintasunerako plangintza eta horren ebaluazioa areagotzea eta hobetzea.	Pertsonei buruzko datuak jasotzen baditugu, ahal bada bereiztu sexuak.	Bete da.
BG5. Prestakuntza ematea erakunde publikoetako langile guztiei, baita politikariei ere.	Idazkaritza teknikoaren kidei honen berri eman.	Bete da. ITko kideek formazio ezberdinak egin dituzte berdintasunari buruz.
BG6. Estatistika eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea.	Pertsonei buruzko datuak jasotzen baditugu, ahal bada bereiztu sexuak Horrelako dokumentuetan irudiak eta testuak zaindu	Bete da.
BG8. Komunikazioan berdintasuna txertatzea.	Irudiak eta testuak zaindu gure komunikabideetan Idazkaritza Teknikoari proposatzea Mugiment ordezkaria ahal izango den guztietan emakumea izatea. #EmakumeAktiboak traola erabiltzea edukia egokia denean.	Bete da eta Twitterren garrantzi berezia eman zaio #EmakumeAktiboak traolaren bidez. Malen Ruiz de Azua izan da idazkaritza teknikoaren ordezkaria. Zenbait dokumentu zuzendu dira.
BG11. Sektorekako eta zeharkako planetan genero-ikuspegia sartzea.	Mugiment ekintza planean	Plana sortuko denan.
BG12. Kontratu, diru laguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartzea.	Kontratoetan aintzat hartu	Idazkaritza Teknikoaren kontratoan aintzat hartu zen.
BG13. Berdintasunerako koordinazioa eta elkarlana indartzea	Mugiment sareetan tokian tokiko berdintasun eragileak gonbidatu parte hartzera.	Sare gehienek ez dute izan berdintasun eragilearen parte hartzea.
BG14. Emakumeek eta gizonek zuzendaritza-organoetan edo organo pluripertsonaletan ordezkaritza orekatua izan dezaten sustatzea.	Emakumeen parte hartzea idazkaritza teknikoan.	Dalda Barayazarra gehitu da lantaldera. Orain bi emakumek eta bi gizonezko osatzen dute Idazkaritza Teknikoa.
BG15. Incorporar la perspectiva de género en los espacios de participación .	Blogarien artean emakume baten parte hartzea lortzea.	Malen Ruiz de Azua eta Dalda Barayazarra aritu dira blogari lanetan.

11.2.- Hizkuntza

-  Euskara da idazkaritza teknikoaren eguneroko hizkuntza eta administrazio gehienekin harremanak euskaraz dira.
-  Oraindik hainbat kasutan zailtasunak dauzkagu beste eragile batzuekin euskaraz egiteko.

11.3.- Ingurumena

-  Desplazamendu motorizatuen kopurua asko igo da bilera presentzialen igoerarekin.
-  Ez dugu erabiltzen digitalak ez diren euskarri materialik.

12.- Adierazleen taula

Hauek dira 2023ko adierazle aipagarrienak. laz izando emaitzekn alderatzen dira.

	Proposatutako ekintzak	2023
1	JFOZ lanean : urte bukaeran dauden orientazio zerbitzuak.	39 (+7)
2	JFOZetan orduak: orientazio zerbitzuetan eskainitako ordu kopurua astean.	451 (+% 29,2) 11,6 batez beste
3	JFOZetako erabiltzaileak: orientazio zerbitzuetan artatutako pertsona kopurua.	2.669 (+% 33,7) 68,4 batez beste
4	JFOZetan hitzorduak: orientazio zerbitzuetan izandako hitzorduak.	6.582 (+% 60,3) 168,8 batez beste
5	Deribazioak Osakidetzatik: orientazio zerbitzuetara Osakidetzatik egindako deribazioak.	2.294 (+% 76,5) 58,8 batez beste
6	Mugiment sareak : urte bukaeran martxan daudenak.	30 (+5)
7	Sareetako bilerak: sareetan idazkaritza teknikoa egondako bileretan (bilera agiri kopurua).	115 (+5)
8	Ikastetxeak: Eusfit Mugiment ekimenean parte hartu duten ikastetxeak.	34
9	Irakasleak: Eusfit Mugiment ekimenean parte hartu duten irakasleak.	58
10	Taldeak: Eusfit Mugiment ekimenean erregistratutako ikasle talde kopurua.	216
11	Udalerriak: Eusfit Mugiment ekimenean parte hartu duten ikastetxeen udalerriak.	27
12	Neurketa kopurua: Eusfit Mugiment baitan egindako neurketa kopurua.	3.605
13	Web inprimatzeak: webgunearen bidez lortutako inprimatze kopurua.	28.150 (+% 9,8)
14	Sarrerak : blogean argitaratutako sarrera kopurua.	62 (+3)
15	Irekierak: buletinaren irekierak.	5.185 (+% 6,6)
16	Elkareragina: Twitter-en lortutako elkareragin kopurua.	6.147 (+% 2,8)
17	Txioak: argitaratutako txio kopurua.	526 (-% 64,3)
18	Jarraitzaileak: Twitteren gehitutako jarraitzaile kopurua.	2.920 (+9)
19	Tw inprimatzeak: Twitter-en lortutako inprimatzeak.	156.600 (-% 10,5)

13.- Laburpena

Hauek dira 2023an egindakoren mugarri aipagarrienak:

-  **Egitasmoaren zabalpena:** 120 sustatzaile gara.
-  **Mugiment Sareak:** ESI ezberdinetako erizain komunitarioak tokiko-sareetan parte hartzen hasi dira.
-  **Orientazio Zerbitzuak:** orientazio zerbitzu berri asko sortu dira. Osasun zentroen inplikazioa orientazio zerbitzuen funtzionamenduan geroz eta handiagoa da.
-  **Eusfit Mugiment** ekimena EAEko ikastetxe guztiei irekita egin da.
-  **Koordinazioa:** Jaurlaritzako beste sailekin eta Bizkaiko eta Arabako Foru Aldundiekin koordinazio maila hobetu behar dugu.
-  **Mugiment ekintza plana:** plana sortzen hasteko lehen pausoak eman ditugu.
-  **Komunikazioa:** ohiko lan dinamika jarraitu arren, hainbat komunikazio adierazle ez dira izan espero genituenak. Jarduera fisikoa sustatzeko mezua zabaltzeko zailtasunak.
-  **Formazioak:** JFren eta kirolaren eta osasun arloko profesionalei berriazko formazioa eman zaie jarduera fisikoaren preskripzioan.
-  **Dirulaguntzak:** 2023an berriz ere dirulaguntzak eman ditu Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak orientazio zerbitzuak garatzeko.
-  **Ikerketak:** azelerometria ikerketaren emaitzak aurkeztu dira.
-  **Berdintasuna:** ekimen guztietan emakumeen parte-hartzea oso nabarmena da, izan erabiltzaileak, izan kudeatzaile edo sustatzaileak.

2023



Koordinazioaren zailtasunak

2023



Eusfit Mugiment aurrera

JF arautu da [2/2023 Legean](#)